

2022

GARIZUMA

NERABEZAROA



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO



Bat gara, compartimos camino

Cuaresma 2022 Garizuma

"Por una Iglesia sinodal: comunión participación y misión"

BAT GARA, ELKARREKIN BIDE EGINEZ



SARRERA

Fede-zabalkunde eta Katekesirako, Karitate eta Zuzentasunerako, Misioetarako, Caritaseko ordezkarietatik, Liturgiako Ordezkaritzarekin, ETPlarekin eta Euskalerriko Eskautak Bizkaia mugimenduekin koordinatuta, proposamena egin nahi zaio Elizbarrutiari, elkarreetan, katekesian, ikastetxeetan, erakundeetan, e.a., Frantzisko aita santuak deitutako «*Sinodo-seneko Eleizaren alde: elkartasuna, partaidetza eta misioa*» Sinodoaren zentzunean sakondu ahal izateko

Garizuma-aldian gaude; berrogei eguneko liturgia aldi honetan, Hauts-egunetik Erramugandera arte, BIDEARI lotuko gatzazkio, bakarka zein elkartean azterketa egin eta gure kristau nortasuna berritzeko eta suspertzeko.

2002ko Garizuma-aldian egingo dugun dugun BIDEA mundu osoko Elizak hasi izan duen beste BIDE batekin lotuko dogu: Sinodo-seneko Elizaren inguruko Sinodoaren BIDEAREKIN. 'Sinodo' hitza grekotik dator eta "elkarrekin bide egin" esan nahi du, hain zuzen. Horregatik, Garizuma-aldi honetan, Elizbarrutiak dei egin digu, "bat gara, elkarrekin bide eginez" goiburuaz baliaturik gure elkarte esperientzian sakon dezagun, nor dugun bidelagun, eta beharbada bide-ertzean nor uzten dugun, jabe gaitezen eta elkar entzutea, guztien parte hartzea sustatu eta elkarte lokarriak estu ditzagun.



Testuinguru orokor honetan aurkeztuko dugu nerabeei (kristau sarbideko taldeak, EEB, ikastetxeak,...) zuzendutako proposamena. Saio bakarrean lantzeko lagungarriak dira eta helburu hauek dituzte:

- Bizi izandako esperientziak kontuan hartuta, "beste batzuekin egiteak", bidelagun izateak dakarren aberastasunaz jabetu.
- Eliza elkarte erantzunkide bezala ulertu.
- Kristau elkarte zehatza osatzen duten taldeak ezagutu eta hauen arteko hartu-emana hobetzeko bideak proposatu.

Saioa, 3 zatitan banatuta dago, bizitza azterketarako jardunbidean (ikusi, epaitu ekin) oinarrituta. Saioa garatu aurretik, taldeko begirale edo laguntzaileak kristau elkarte (parrokia edo PBa) zein taldez osaturik dagoen eta talde bakoitzak elkartean duen egitekoa edo lekua zein den jakin behar du, gaztetxoei aurkeztu eta azaldu ahal izateko.

BAT GARA, ELKARREKIN BIDE EGINEZ



JARDUERAREN GARAPENA

1. ZATIA: IKUSI



Lehen zati honetan, taldea egitearen, beste batzuen “bidelagun” izatearen, helburu beraren alde indarrak biltzearen inguruan dituzten esperientziez jabetzen lagunduko diegu partaideei.

1. Hasteko, honako bideo hau ikusiko dugu: *“El Poder del Trabajo en Equipo”*¹



BIDEOA IKUSTEKO,
KLIKATU IRUDIAN ALA
ESKANEATU QR KODEA



Eta labur-labur komentatuko dugu: Zerk eman dizue aditzera?

2. Ondoren, Axelen *“Somos uno”*² abestia entzungo dugu: Guztiek letra aurrean izatea komeni da, horretan arreta jartzeko. (I. eranskina).



BIDEOA IKUSTEKO,
KLIKATU IRUDIAN ALA
ESKANEATU QR KODEA



Bideoa eta abestiaren letra oinarritzat hartuta, taldean elkarrizketan jardungo dugu, taldea egitearen, beste batzuekin batera jardutearen esperientzian sakontzeko. Galdera hauek baliagarri izan daitezke:

- Zertaz hitz egiten du abestiak? Zer helarazi nahi digu?
- Zein balio antzematen duzu bideoan eta abestian?
- Zer diotsu “bat gara besteekin” esaldiak?
- Bizi izan duzu bizitzan “bat gara besteekin” esaldia erabiltzeko esperientziarik?
 - Kontatu.
 - Nola sentitu zinen? Eta besteak?
 - Zailtasunik izan zen? Nola konpondu zenituen?
- Batzuetan, gauzak besteekin egiten ditugunean, astiroago ibili behar dugu eta beharbada ez nahiko genukeen bezala... Zer deritzozu? Zer da hobe, “norbere airera” ala “beste batzuekin” ibiltzea?

Baten eta bestearen esperientziak batera jarri eta horien inguruan elkarrizketan jardun ondoren, saioaren bigarren zatia ekingo diogu: zer esan dezakegu gai honi buruz Jesus eta Berri Ona entzun ondoren?

¹ <https://www.youtube.com/watch?v=YGxr38aTM2c>

² <https://youtu.be/1MibkygUPLU>

BAT GARA, ELKARREKIN BIDE EGINEZ

2. ZATIA: EPAITU




Jesusek ez zuen zalantzarik izan, Bera “beste batzuekin batera” ibili zen. Hasieratik, taldean ibili zen, Berarekin egon eta, Berri Ona iragartzeko egitekoan, laguntzaile izan zitezen deitu zituen apostoluekin (Markos 3, 13-19).

Hasierako Jesusen jarraitzaile haien ondorengo garen kristauok ez gabilta “geure aldetik”; elkarte osatzen dugu, Eliza eta honi bat eginda irautea dagokio. Jainkoaren Hitza irakurriz gero, besteak beste, San Paulok Eliza irudikatzeko darabilen irudia aurkituko dugu: Kristoren Gorputza dela dio, gorputz horretan denok garela garrantzitsuak, eta bakoitzak bere lekua, egitekoa eta erantzukizuna duela. Entzun dezagun.



1 KORINTOARREI 12, 12-30


Gorputzak, bat izan arren, atal asko ditu, baina atal guztiek, asko izan arren, gorputz bat osatzen dute. Gauza bera gertatzen da Kristorekin ere. Gu guztiok, judu nahiz jentil, esklabo nahiz libre, Espiritu bat beraz izan gara bataiatuak, gorputz bat bakarra egiteko, eta guztioi Espiritu bat bera isuri zaigu.



Gorputza, izan ere, ez du atal bakarrak osatzen, askok baizik. Oinak «Eskua ez naizenez gero, ez naiz gorputzarena» esango balu, ez lioke horregatik gorputzarena izateari utziko. Eta belarriak «Bergia ez naizenez gero, ez naiz gorputzarena» esango balu, ez lioke horregatik gorputzarena izateari utziko. Gorputz guztia begi balitz, non entzumena? Eta dena belarri balitz, non usaimena? Baina Jainkoak bere tokia jarri zion atal bakoitzari gorputzean, berak nahi bezala. Denak atal bat balira, zer-nolakoa izango litzateke gorputz hori? Baina ez, atalak asko dira; gorputza, ordea, bat bakarra.

Begiak ez diezaioke eskuari esan: «Ez dut zure beharrik»; ezta buruak ere oinei: «Ez dut zure beharrik». Aitzitik, makalenak iruditzen zaizkigun gorputz-atalak beharrezkoenak dira; eta duintasunik gutxieneko iruditzen zaizkigunak, itzal eta begirune handienaz inguratzen eta zaintzen ditugu. Izan ere, berez ohoragarri direnek ez dute arreta horien beharrik. Jainkoak berak, gorputza eratzean, berez ohore gabeko ziren atalei ohorerik handiena eman zien. Horrela, gorputzean zatiketarik ez dago eta atal guztiak bata besteaz arduratzen dira. Honela, atal batek min duenean, min dute atal guztiek berarekin; eta atal bat onetsia denean, poza dute beste guztiek berarekin.

Zuek Kristoren gorputz zarete, eta zuetako bakoitza gorputz horren atal. Eliz elkarte bakoitzari bere tokia ezarri dio Jainkoak: lehenengo apostoluak, bigarren profetak, hirugarren irakasleak; ondoren, mirarigileak datoz; gero, sendatzeko edo behartsuei laguntzeko, elkarte gidatzeko edo hizketa arrotzez mintzatzeko dohaina dutenak. Guztiak apostolu ote dira? Guztiak profeta? Guztiak irakasle? Guztiak mirarigile? Guztiak ote dute sendatzeko dohaina? Guztiak mintzo ote dira hizketa arrotzez? Guztiak ote dira hizketa arrotzen interpretatzaile?



BAT GARA, ELKARREKIN BIDE EGINEZ

Begirale edo laguntzaileak gidatuta, taldean irakurgaiaren inguruan hitz egingo dute:

- Zer esan nahi du?
- Zer helarazi nahi digu Paulok gorputzaren irudi hau erabiltzean?
- Nola aplikatzen zaio Elizari?
- Nola uler daiteke desberdin izatea eta, aldi berean, bat eginik egotea? Aldea, desberdintasuna, batasunaren aurka dago?



(Idazkiaren azalpenak eta ulermena laguntzeko, **“Somos miembros de un mismo cuerpo”** bideoa ikus daiteke. Begiraleak ikusiko du, taldearen eta astiaren arabera, delako bideo hori ikustea komeni den ala ez:



BIDEOA IKUSTEKO,
KLIKATU IRUDIAN ALA
ESKANEATU QR KODEA



Ondorengo ariketaren bidez, Eliza elkarte ardurakide dela eta bertan kide bakoitzaren ekarpena ezinbesteko dela ikusarazi nahi da eta horretan sakondu.

ARIKETA: “ORKESTRA”

Parrokiaren urteurrena ospatuko dela-eta, ekitaldirako musika-konposizioa prestatzeko aukeratu dituztela jakinaraziko diegu taldekideei. Horretarako, jardunbiderik berriena proposatu da: orkestraren jolasa.



Honetan datza: zirkuluan ipiniko dira eta taldekide bakoitzak soinuren bat egingo du: oinaz lurra jo, txaloak jo edo ahotsarekin soinu zehatzen bat egin. Lagun bakoitzak beti soinu bera egingo du; esate baterako, norbaiten UUUUU goi-erregistroan egiten badu, soinu berari eutsiko dio ariketa osoan.

Denak batera hasiko dira bakoitzak aukeratu duen soinua egiten. Seguruenik, soinuak bereiztea galaraziko duen burrunba entzungo da. Garrantzitsua da taldea kontu honetaz jabetzea. Taldekideek beraiek aztertuko dute zer gertatu den eta emaitza hura nola hobe daitekeen pentsatuko. Begiraleak lagun ditzake, honelako galderen bitartez:


- Zer deritzozue konposizioari?. “Zaila izan da taldekideen soinuak bereiztea?,
- Zein izan da zuen esperientzia?”.
- Konposizio hori hobetzeko gauza izango ote gara?.

³ <https://www.youtube.com/watch?v=Y8xkwgQd7CE>

BAT GARA, ELKARREKIN BIDE EGINEZ

Azken helburua, bakarka soinu egin eta, azkenean, erritmo bakarraren haritik jardutea litzateke: erritmoa + soinua. Adibidez: Lagun batek TAP – TAP – TAP egin dezake eta, ondoren, beste batek: PUF – PUF – PUF...

Denbora nahiko eman behar diegu soinu atsegingarri eta zentzuzkoa lortzea zein zaila den zuzenean ikus dezaten. Taldeak helburu hori ezin duela lortu ikusten badu, argibideak eman ditzake: *“Erritmo geldiarekin has zaitezte eta apurka-apurka handitzen joan”, “banan-banan hasiz gero, errazago aurkituko duzue oreka”...*



Baterako doinua, harmonizatua eskaintzeko gauza izan direnean amaituko da ariketa. Orduan, bizen haiek ulertzen lagunduko dio begiraleak taldeari.

- Zer iruditu zaizue? Nola sentitu zarete?
- Zer zen ezinbesteko soinu atsegina lortzeko?
- Zer gertatzen da norbaitek “soinu egiten ez badu”, konposizioan bere ekarpena egiten ez badu, edo besteak entzun gabe jotzen badu?
- Eta adibide hau gure elkarteari aplikatuko bagenio, bertan “doinua ondo entzun dadin”? Zein jarrera da ezinbesteko gure elkartean benetan “bat izan gaitezen besteekin”, elkarrekin bide egin dezagun eta erantzunkide izan gaitezen? (entzutea, enpatia, zintzotasuna, elkartasuna, barkamena...).

BARNERATZEA ETA OTOITZA

Hirugarren zatia ekin aurretik, orain arte hitz egin eta bizi izandako guztia barneratu, hausnartu eta horren inguruan otoitz egiteko unea izango dugu. Minutu batzuez isilunea egin, musika jarri eta bakarka II. eranskinean jasotzen diren galderei erantzungo diegu. Tarte honi amaiera emateko, otoitz giroan, bakoitzak hartu duen konpromisoa batera jarriko dugu eta galderekin batera agertzen den otoitza esango dugu elkarrekin.



BAT GARA, ELKARREKIN BIDE EGINEZ



3. ZATIA: EGIN

Hirugarren zati honetan, EKIN aldian, gaztetxoek elkartea (parrokia edo PBa) osatzen duten taldeak ezagutuko dituzte. Ondoren, beraien arteko hartu-emana hobetzeko eta elkarte lokarriak estutzeko erak proposatuko dituzte. Aukera bat, elkartearen Instagram diseinatzea izan daiteke.



Taldeakideak zenbat diren kontuan hartuta, jarduera hau talde bakarrean egin daiteke edo talde txikiagotan banatuta. Begirale edo laguntzaileak honako azalpenak emango dizkio taldeari:

Demagun gure parrokia gizarte sarea dela, esate baterako, Instagram. Izena jarriko genioke, deskribapena, profil-argazkia eta beste argazkiren bat gure feedean. Gure parrokia/elkartearen bizitza Instagrameko profila osatzen duten atalen bitartez agertzeraz ematen saiatuko gara. Gure jarraitzaile izan daitezkeen pertsona edo taldeak gehituko ditugu eta baita gure parrokiak, osatzen duten talde eta pertsonak ordezkatzuz, jarraituko lituzkeenak ere. Elkarteak beste hainbat taldek idatz diezazkigukeen mezu zuzenak edo azalpenak ere pentsatuko ditugu. Guzti hori kartulinar jaso dezakegu.

Talde-lana amaitu ondoren, bateratze-lana egingo dugu, elkarren proposamenak ezagutu eta Eliza irudikatzeko askotariko erak ikusteko. Une honetan, laguntzaileak aipatu gabe utzitako taldeak gehituko ditu beren eginkizuna azalduz. Instagrama diseinatu ondoren, taldeen artean dugun hartu-emana eta komunikazioaren inguruan hausnar dezakegu eta elkarriketari jardun.

Garrantzitsua da, amaitu aurretik, elkarte lokarriak estutzeari begira zein konpromiso zehatz hartuko dugun esatea:

**“¿ZER EGIN DEZAKEGU GURE TALDETIK PARROKIAN (EDO PBAN)
BENETAN ELKARTE SENTITU GAITEZEN?”**



Taldeakideek ideiarik ematen ez badute, begiraleak aipa ditzake:

- Beste talderen bateko kideak bilerara eraman zer egiten duten eta elkartean nola sentitzen diren kontu diezaieten.
- Taldeak bilerak egiten dituzten lokaletan panela jarri mezuak trukatzeko.
- Bitartekoren bat prestatu eta elkarteari eskaini talde bakoitzak bere jardueren berri eman diezaien gainerakoei.
- ...

I ERANSKINA

"SOMOS UNO", AXEL

YO SOY LO QUE SOY NO SOY LO QUE VES
YO SOY MI FUTURO Y SOY MI AYER
Y HOY SON TAN SÓLO ESTE AMANECER
Y LOS OJOS QUE TE VIERON NACER
SOY TAN SIMPLE QUE CASI NI ME VES
YO SOY LO QUE SOY NO SOY LO QUE VES
NO SOY CUNA DE ORO NI SIMPLE MOISÉS
SOY EL DESAMPARO DEL CORAZÓN
DE AQUEL QUE PELEA Y NO TIENE VOZ
SOY LA MANO QUE TE QUIERE AYUDAR
NO HABLO SOLO DE MÍ CUANDO DIGO QUE SOY
TE HABLO DE ESE LUGAR DONDE NACE EL AMOR QUE SUEÑAS
OH OH OH OH OH
SOMOS TAN DISTINTOS E IGUALES
OH OH OH OH OH
SOMOS EL QUE SIENTE Y EL QUE NO ESTÁ
OH OH OH OH OH
SOMOS TAN DISTINTOS E IGUALES
OH OH OH OH OH
TODOS SOMOS UNO CON LOS DEMÁS
LA PIEDRA Y EL RÍO, EL CIELO, LA FLOR
TODOS SOMOS UNO CON LOS DEMÁS
EL LOBO, EL CORDERO, Y EL MISMO DIOS
TODOS SOMOS UNO...
YO SOY LO QUE SOY NO SOY LO QUE VES
SOY MI PASADO Y SOY MI DESPUÉS
SOY LIBRE Y DICHOSO POR ELECCIÓN
SOY UN LOCO INQUIETO PIDIENDO PAZ
SOY LA MANO QUE TE QUIERE AYUDAR
NO HABLO SOLO DE MÍ CUANDO DIGO QUE SOY
TE HABLO DE ESE LUGAR DONDE NACE EL AMOR QUE SUEÑAS

OH OH OH OH OH
SOMOS TAN DISTINTOS E IGUALES
OH OH OH OH OH
SOMOS EL QUE SIENTE Y EL QUE NO ESTÁ
OH OH OH OH OH
SOMOS TAN DISTINTOS E IGUALES
OH OH OH OH OH
TODOS SOMOS UNO CON LOS DEMÁS
LA PIEDRA Y EL RÍO, EL CIELO, LA FLOR
TODOS SOMOS UNO CON LOS DEMÁS
EL LOBO, EL CORDERO, Y EL MISMO DIOS
TODOS SOMOS UNO...
OH OH OH OH OH
SOMOS TAN DISTINTOS E IGUALES
OH OH OH OH OH
SOMOS EL QUE SIENTE Y EL QUE NO ESTÁ
OH OH OH OH OH
SOMOS TAN DISTINTOS E IGUALES
OH OH OH OH OH
TODOS SOMOS UNO CON LOS DEMÁS
TODOS SOMOS UNO CON LOS DEMÁS
TODOS SOMOS UNO CON LOS DEMÁS
TODOS SOMOS UNO CON LOS DEMÁS
TODOS SOMOS UNO CON LOS DEMÁS
SOMOS TAN DISTINTOS E IGUALES
TODOS SOMOS UNO CON LOS DEMÁS
SOMOS TAN DISTINTOS E IGUALES
TODOS SOMOS UNO...

II ERANSKINA

I KORINTOARREI 12, 12-30 AZALPENA BEGIRALE EDO LAGUNTZAILEARENTZAT

Hitzak Elizan dauden dohain espiritualen aniztasuna azaltzen digu. Askotariko ministerioak daude, baina Jauna bera da. Hala ere, eginkizunen aniztasun hau ez dator Eliza barruko tirabiretatik, nahiz eta, ohi denez, erakunderen batean bat eginda irauteko kideek elkarren artean ahalik eta antz gehien izan behar dutela pentsatu. Apostoluak irakasten digunez, aniztasun guzti horri esker, Elizan, arlo guztietan, elkarren osagarri gara eta, ondorioz, kide guztiok elkarri mesede egiten diogu. Helburu hau lortzeko, Paulo giza gorputzaren alegoriaz baliatuko da Elizarekin alderatzeko. Horregatik, askoren ustez, Eliza erakundea ez ezik organismo bizia da eta bertan kideak elkarri loturik daude benetako senidetasunaren fede bakarrean elkar osatzeko.

Aniztasuna dago eta baita elkarte ere; ez bakarrik gizarte orotan elkarrekiko mendetasunak dakartzan giza arrazoiengatik, Espiritu bera jasota, fede bera eta Kristorekiko harreman pertsonal bera izateagatik baizik. Elizaren batasunak eta, zehazki, kideen arteko maitasunak, elkarturik eta koordinaturik ibiltzera garamatza. Kideen elkarrekiko menpekotasuna azpimarratzen du, denak irizpide jakin batzuen haritik, alde batetik gizatiar eta arruntak eta, bestetik, kristauek sakonean elkarrenganako sentitu behar duten maitasuna. Ez behetik gora bakarrik, goitik behera ere bai. Eta ez “artzain lanetan” bakarrik, baita errespetuan, aintzat hartzean, estimu izatean, kontsulta egitean... baizik. Guzti horrek laguntzen du kideen arteko batasuna lortzen.

Paulok baieztatuak Kristoren gorputzaren batasuna, karismak asko direnean bakarrik gertatzen da. Paulok ikusarazten digunez, aniztasun horrek batasuna desegin ordeztu, ziurtatu egiten du. Askotariko dohainen trukeak elkarte aberastu egiten du.

Hala ere, ezin dugu ahaztu beste hau ere: Espirituaren dohainak anitzak direla oso eta gizon eta emakumeen bizi dituzten egoerak beste hainbeste eta horregatik maitasun nekaezinaren gauzatze apal eta iraunkorrak ahalbideratuko du bakarrik bat egindako Kristoren gorputza eratzea.

III ERANSKINA

- Nor duzu bidelagun elkartearen ibilbidean?
- Nor gehituko zenuke ibilaldian?
- Zein dohain eskain diezaiokezu elkarteari?
- Zein jarrerak eragozten du elkarrekin bide egitea?
- Zerbait aldatu beharko zenuke edo beste jarreraren bat hartu elkartasuna sustatzen laguntzeko? Saia zaitez konpromisoa hartzen, hobetzen lagunduko dizun helburua jartzen.



OTOITZA

HEMEN GAUZKAZU, JAUNA! JESUS, ELKARREKIN DIHARDUGU ZURE BILA.
HEMEN GAUZKAZU, BIHOTZA ASKATASUN-HEGOEZ DUGULA.
HEMEN GAUZKAZU, JAUNA, ELKARREKIN, ADISKIDE BEZALA. ELKARREKIN.

BIDELAGUN DIRENEN ERDIAN ZAUELA ESAN ZENUEN.
JESUS JAUNA, ELKARREKIN GAUDE ETA OIN HUTSEAN.
ELKARREKIN ETA BIDE EGITEKO, BASAMORTUA EGITEKO GOGOZ.
ELKARREKIN, HERRI BAKAR BATEAN BEZALA, MULTZO BEZALA.
ELKARREKIN BAT EGINDA, ESTU-ESTU, GALBURU BEZALA, UKABIL BEZALA.

EMAN, JESUS JAUNA, ELKARREKIN BIDE EGITEAREN INDARRA.
EMAN, JESUS JAUNA, ELKARREKIN EGOTEAREN POZA.
EMAN, JESUS JAUNA, ONDOAN ANAI-ARREBA IZATEAREN POZA.
EMAN, JESUS JAUNA, TALDEAN BILA ARI DIRENEN BAKEA.

ONA DA, JAUNA, EMANDAKO ESKUEN ABENTURAN SARTZEA.
ONA DA, INOR BIDEAN GALDUTA GERA EZ DADIN.
ONA DA, JAUNA, ILUSIO ETA ITXAROPENAK BESTEEKIN BIZITZEA.
ONA DA, JAUNA, ZURE ESPIRITUAREN GIDARITZA ONARTZEA.